

*Poesia*

**MIKEL ETXABURU**

*Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak*

**BLAS DE OTERO - BILBO URIA**  
NAZIOARTEKO VIII. POESIA LEHIAKETA



erein

LO ZAUDELA ZABALDU  
DIZKIZUT BEGIAK

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

---

BILBOKO UDALAK ETA BLAS DE OTERO FUNDAZIOAK ANTOLATZEN DUTEN BLAS DE OTERO - BILBU URIA  
VIII. POESIA SARIA IRABAZI DU LIBURU HONEK.

*1. argitalpena: 2016ko irailean*

Azalaren diseinua:

Iturri

Azaleko irudia:

Iván Landa

Maketazioa:

Erein

© Mikel Etxaburu

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-146-2

L. G.: SS-1122/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [edizioak@itxaropena.net](mailto:edizioak@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Mikel Etxaburu

LO ZAUDELA ZABALDU  
DIZKIZUT BEGIAK



## MAITE NAU... EZ NAU MAITE...

Margarita-hostoak inausi ditut denboraren hatzetatik;  
maite nau... ez nau maite... maite nau... ez nau maite...  
Oroitzea dela ematen du denbora geratzeko era bakarra,  
eta itsasotik irten diren naufragio hondakinekin egin dut topo,  
muskuilu-durundia bezain lanbro, jabe bila ari dira;  
Ulertu dut izan ez nintzenagatik salatu nautela.  
Eta harearen azalean oin-urratsak berdintzen ikusi ditut  
hil diren egunen oihartzuna bezain zoli;  
erraldoi bihurtu zaizkit-eta gaztetako jolasak.  
Badakit naizenagatik salatu nahi nautela.  
Maite nau, ez nau maite...  
Itoginaren sekuentzia erritmikoan busti zaizkit abarketa-zolak,  
tantaka-tantaka..., astun hasi zitzaion azala zimurtzen sagarrari...  
    Berlingo harresi zatiak patriketan gorde eta  
    ibaira salto egin nuenean;  
    abenduko euri-egun hartan trenak hartu zuen norabidean;  
    David Bowiek ilea lehen aldiz tindatu zuenean;  
    burusoil geratu nintzenean;  
    magnoliek limoi usaina daukatela konturatu nintzenean  
    hasi zitzaion azala ferekei oldartzen...  
    eguzkitik ezta ateratzen ikasi nuenean.  
Orain, arropa eskegitzeko sokan zintzilikatu nahi nituzke  
margarita-hostoak banaka-banaka,  
maite ote nauen... ez ote nauen maite...  
maite ote nauen... ez ote nauen maite...  
huntza enborrari bezala lotu zaizkit oroitzak azalari,  
eta oroitzea da denbora geratzeko era bakarra  
baina oroitzea ez da berriro bizitzea.

## EZ DUGU EGUZKIA HELBURU

Ipurtargiak ez du eguzkia helburu.  
Ematen du bere burua ikusteko lain argi;  
eta nahikoa zaio nor den ez ahazteko.

Gure plazetako farolek ere ez dute eguzkia ordezkatu nahi,  
elkar ikusteko lain argi ematen digute.  
Eta nahikoa zaigu argi nabar hori batak bestea besarkatzeko.  
Nahikoa zaigu plazetako farolen argi horia  
konstelazio berriekin amesteko.

Ipurtargiek bezala, guk ere, ez dugu eguzkia helburu,  
nahikoa zaigulako gure herrietako farolen epela  
elkarrekin bide berriak argitzeko.

## IZAR ZOPA

Egurrezko aulkian eserita  
sukaldeko leihotik begiratu diozu zeruari.  
Ezin duzu urrutira so egin ito barik, ahaztu duzu-eta  
zelan egiten den igeri;  
sukaldeko leihotik begiratu diozu  
hegakinek utzitako hodei zuriari.

Abioiek ez dute goxokorik bota,  
eta igeri egiten ahazten zaigunean euritan itotzen gara;  
zeruari begira zauden leihoan gotortu egin dira-eta enbatak.

Abioiek atzean uzten duten ke-marrei  
putz egin diezu, zeruari eragindako orbanak gozatzeko;  
bueltatuko ez den semearen ezpainetan zure arnasak iraun dezan.

Egurrezko aulkian,  
zeruari begiratu diozu sukaldeko leihotik.  
Ezin duzu urrutira so egin ito barik;  
putzek ez dakite hodeiak mugitzen.  
Sukaldeko aulki txikian eserita, badoan semearen zain geratu zara.  
*...ez iritsi berandu,*  
*gaur gauean izar-zopa afalduko dugu eta...*

## SINETSI BEHAR

Oskoleko durundiarekin konformatzeko eta  
itsaso berriak ahazteko esaten digute.

Ilargia itzali eta mesanotxeko argia pizteko,  
pentsatzeko, eta ez sentitzeko.

Eta guk, harri-koxkorrak bota ditugu erreketara  
uhinak sortzeko gai garela

sinetsi beharrean gaudelako.

## ZURE KONTRA

Zure kontra jotzen dute olatuek:  
gorrek ere entzuten dute dunbotsa;  
abandonatu dute lapek azala eta jadanik,  
kaioak ez dira zure sarguneetan erditzen.  
Gainerako arrokei kasurik egin gabe zure kontra  
egiten dute olatuek talka,  
sekuentzia bukaezinetan zartatzen dira  
zure azalean zauriak zauritzen.

Eta olatuak bainuontzian gorde nahi zenituzke,  
baina beranduegi da, bainuontzia zulatuta dago eta  
itsasoak ihes egin du zure bainugelatik;  
odolak zure zainetatik bezala.  
Haurrak klariona zuriz idatzitakoa  
eskuarekin ezabatzen duen moduan,  
berdinu nahiko zenuke lokatzetan utzitako  
aurreneko oin-marka,  
baina beranduegi da, oinak bidean galdu dituzu eta  
oin-markek ez dizute inorako biderik erakusten.

Eta olatuak hondoratu zaitu orain merengezko aparretan:  
harri zara itotzen ari den gorpuari oratuta.  
Eta jadanik ezin da ilargi argitan sikatu  
zure arnasak sorrarazi zuen ihintz tantoa.  
Lapek ere zure azala abandonatu dutenerako,  
olatuek baizik ez zaituzte eta besarkatzen.

## JAUZIKA

Izokina errekan gora bezala zoaz jauzika  
edalongti batetik bestera,  
gorpu batetik bestera uharka agorrera,  
izokina errekan gora bezala zoaz  
azala aintziran abandonatzera.





## ZIGORRA

Zigorra hankamotza da, beti iristen den arren.

Jiraka dator, geldo:

ziba lurrarekin berdindu aurreko azken bira bezain geldo,

*yo-yo*ak sokan gora ezin duenean bezain astiro.

Olatuek hanean abandonatutako izarrak bildu eta

lur-azpian gordetzen ditu hankamotzak, ur ertzean jolasean

dabilen haurrak aurkitu eta zerura bueltatu ez ditzan.

Jiraka dator zigorra,

erlojuan preso diren ezpaten minutua bezain astiro;

arrainontzian bizi den itsas izarraren malkoa bezain zoli.

Hankamotz dator zigorra, beti iristen den arren izar naufragoren

bat eskuetan biltzera ausartzen garenean.

## GORDE NITUEN ESQUAK

*...umeak hitz egin ahal izan zuen bezain laster, galdetu nion:  
–Zer dela eta ez zenuen hegana egin erortzean, semetxo?  
–Hegana egin? –esan zidan–. Hegana egin, jendeak nitaz barre  
egiteko?*

ENRIQUE ANDERSON IMBERT

Eta konturatu gabe eskutik heldu ninduzun;  
kaiolako atea zabaldu zenidan.  
Nik,  
eskua gorde nuen;  
eta niri,  
hegoak erori zitzaizkidan lurrera.

## LUBAKIA ABERRI

Kale-garbitzaileek ez dituzte hostoak biltzen;  
haurrek ez dituzte zorroetan gordetzen ondoren  
koaderno urdinetan sikatzeko.

Hirietan inork ez daki zein zuhaitzetatik erori den,  
eta badirudi haizea dutela xede hostoek eta haurrek  
sustrai bila zementuaren zaurietan.

Kale-garbitzaileek ez dituzte hostoak biltzen,  
eta badirudi geu ere halaxe gabiltzala,  
haizeak non pausatuko gaituen zain,  
zementuzko zauriren batean esperantza berriak ereiteko.  
Hirietan inork ez daki zein zuhaitzetatik erori den,  
eta badirudi lubakia dugula aberri.

## EZ DUZU AUKERATU

Marmokak ez du aukeratu zein korrontek  
eroan duen kostaldera.

Olatuak ez du aukeratu zein hondartza-azal  
laztandu duen.

Arrokak ez du aukeratu higatu duen  
haizea.

Nik ez dut aukeratu zein gezik zulatu nauen...

...zainetatik zintzilik ditut orratzak;  
arrosaren arantzak,  
eta bakardadea odoletan haragian.

## ZINTZILIK

Bizi naizen zintarran ez dago itsaso edo aintzirarik;  
ez dago urruneko uharte epelik.  
Hodei antzuan zintzilik dagoen armiarma naiz.  
Eta ezin ditut kendu zapa-hormetan itsatsirik  
geratu zaizkidan sustraiak eta orbeldorak.  
Azalik gabeko fruta naiz.

Bizi zaren espaloian ez dago urik edo ferekarik,  
ezta malkorik isurtzen dakienik ere.  
Ilargitan sikatzen utzitako gutun bustia zara.  
Eta zintzilik diraute aurreko urteko hostoek,  
arropa eskegitzeko soka ahaztu dituzun zauriak,  
zintzilik diraute sikatu ezin diren oroitzak.  
Mihirik gabeko ezkila zara.

Arrainontziak hareaz bete dira;  
sustraiak hazi zaizkigu begietan.  
Eta hodei antzuetatik zintzilik gauden trapezistak gara  
haizeak elkarrengana noiz hurbilduko.